

Donezteben, 1998ko irailaren 25ean Ageriko batzarra

Doneztebeko *Leku Eder* zinetokian, 1998ko irailaren 25ean, arratsaldeko zortzietan, eman dio hasiera Euskaltzaindiak ageriko bilera-ospakizunari. Bilera honen xedea Euskaltzaindiak herri honetan 1923an egin zituen II. Euskalegunen 75. urteurrena ospatzea zen.

Mahaian J. Haritschelhar euskaltzainburua, Miguel San Miguel herriko alkatea, Andres Iñigo, Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria, Fernando Pérez de Viñaspre, Nafar Gobernuak hizkuntz politika arduraduna, M.^a Jesus Perurena, udal zinegotzia eta Pedro Mindegia, Malerrekako Euskara batzordearen burua exeri dira.

Aipatuez gainera, honako jaun-andre hauek bildu dira aretoan: H. Knörr, P. Goenaga, J. A. Arana, M. Azkarate, P. Charriton, X. Diharce, X. Kintana, J. M. Lekuona, F. Ondarra, Tx. Peillen eta J. M. Satrustegi euskaltzainak eta R. Badiola, Pilartxo Etxeberria, J. M. Larrarte, J. L. Lizundia, L. Oñederra, M. M. Ruiz Urrestarazu eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak alde batetik eta herritar ugari.

Herriko alkateak eman dio hasiera ekitaldiari ongi etorria eginez Euskaltzaindiari eta gainerako entzule guztiei.

Sarrera hitz hauen ondoren, Andres Iñigo euskaltzain urgazleak hartu du hitza honako mintzaldi hau eskainiz: “1923. urteko II. Euskalegunen oroimenez”.

Ondoren, M.^a Jesus Perurena andrea mintzatu da. Gaia honako hau zuen: “Euskara irakaskuntzan azken 23 urteotan Doneztebe eta Malerrekan”. Hasierako garai zailak eta euskararen urtez urteko bilakaera azaldu dizkie hizlariak entzuleei. Gaia hurbiletik bizi izan duenak bezala, azalpen hunkigarria eta interes handikoa eskaini du.

Gero, Pedro Mindegia jaunak bere lana irakurri du: “Euskararen egoera Malerreka, Baztan eta Bortzerrietan”.

Ondoren, euskaltzainburua mintzatu da, eskerrak emanez eta bilkuraren zergatia eta Euskaltzaindiaren garai bateko Euskalegunak zer ziren azalduz.

Azkenik, herriko abesbatzak eta musika taldeak euskal kanta ezagunetz osatutako saioa eskaini die bilduei, eta ondoren, pilotalekuan, herriko dantza taldeak bere ekitaldia oparitu die euriaren bildurrik gabe ikustera bildu diren guztiei.

Bederatzi eta erdiak inguruan amaitutzat eman da ospakizuna.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga,